



<b>Erribera</b> ibai ondoko hirigunea	Deustuko <b>Erriberan</b> , Eromen Galduen labirintoa eta Ibaiaren Ezkerraldean, Zorrotzarteko Aharrausien Mesquita.	81
<b>erromes</b> ibiltari erlijiosoa, peregrinoa	...eta, hala ere, hementxe dago, maitasunez deseginda, inoiz baino gehiago Katu Kaleko biztanle sentitzen da, bere musikaren <b>erromes</b> .	82
<b>eskorbuto</b> gaixotasun mota	... <b>eskorbutoari</b> buruzko ez dakit zer ipuin kontatuko dio eta gintonikak bata bestearen atzetik edan, botilaren urdina hustu arte.	93
<b>esne-gain</b> esne-tela, kipurra	Emerentzat, ginebraz eta odolez zipriztunduriko esne platerkada da, eta urrun sentitzen du: <b>esne-gainaren</b> pisuak itota.	54
<b>estropezuka</b> behaztopo edo tupust eginez	Une batez, barrea baino ez, parkeko eskaileretan behera, <b>estropezuka</b> . Une batez, beraiek biak. Eta ez du inporta beste ezerk, une batez.	69
<b>gangar</b> trauskila, itxura traketsekoa	Baina badaki. Bat-batean badaki eta barrez lehertu da. Elkar ezagutu zutenean egiten zuen bezala, karkailaka. Barre <b>gangar</b> , zabal, erotua.	68
<b>ganora</b> estiloa, fundamentua	— Ez duzu etxera joateko <b>ganorarik</b> . Gera zaitetz hementxe goizean, ergel hori.	73
<b>goragaletu</b> botagurea sortu	Baina Eme aspaldi ez da Katu Kalera joan, erre egiten dute gorespeneak, minu laudorioek, <b>goragaletu</b> izen onak.	25
<b>goranahi</b> handitasun-irrika bizia	(«nora joango nintzateke orain, ez dut inoiz <b>goranahirik</b> izan, ondasuna dagoen bitartean, enpresan estimatzen naute...»).	22
<b>gorespen</b> laudorioa, alabantza	Baina Eme aspaldi ez da Katu Kalera joan, erre egiten dute <b>gorespeneak</b> , minu laudorioek, goragaletu izen onak.	25
<b>gozagarri</b> zaporetsua, edangarria	Beren arteko distantzia zazpi kontinente dira. Hamarrentza, mundo baso bete ginebra da, mingostasunak egiten du <b>gozagarri</b> .	54
<b>gurin</b> mantekilla (esnegai biguna)	Borroka Ahaztuen Elizako atean eskalea dabil abesten, bihotza <b>gurinaren</b> antzera zatitzen duen otoa.	79
<b>haginka egin</b> kosk egin, egin, ausiki egin	Besteek <b>haginka egiten</b> dioten lekuan, Bombay Shapphirek besoetan hartu eta mundua nahi duen lekuan jartzen dio.	9
<b>haluzinazio</b> irudipena, imajina asmatua	...leioan iruditu zaio, une batez, katu beltza ikusi duela. Segundo bat baino ez, kamiseta zuri-gorrien artean <b>haluzinazioa</b> zirudien.	46
<b>hankarte</b> sabelpea	Urtu egiten zaizkio mingaina eta ahoaren hezea, belaunak eta <b>hankarte</b> , penaren eztanda luze eta zurian.	32
<b>hautsi</b> apurtua	Emeri ez zaio izozkia gustatzen eta lana egin ondoren ez da inoiz geratzen bihotz <b>hautsien</b> hondamendirako.	25
<b>higuin</b> nazka, antojua	Ez zuen nahi. Bene-benetan esan lezake ez zuela nahi, eta sentitzen duen <b>higuina</b> bere buruaren nazka dela.	41
<b>horditu</b> mozkortu	Hamar <b>horditu</b> egiten da bulegontziaren bela nagusia ikusten duenean.	51
<b>hustu</b> deskargatu	Asko botata Sonnyren aurpegira txistua botatzeko azken ahalegina egingo du, eta gero zapla hilko da. Sonnyk <b>hustu</b> egingo dio metraileta begi zuloan...	64
<b>ikara egin</b> dardaratu, mugitu	...telefonoak <b>ikara egin</b> dio, bakeroen poltsikoan, behin.	23
<b>ileak laztu</b> azkortu, ileak tente jarri	Bat negarrez hasten denean, denak batzen zaizkio. Ilek <b>lazten</b> dituen penaren itsasoan.	33
<b>indarge</b> ahul, makal	Baietz egin zuen, buruarekin, <b>indarge</b> . Hagin artean zuen zulo txikiari erreparatu zion Emek lehen aldiz. Polita zen.	65
<b>irribarrea jantzi</b> aurpegikera goxoa ipini	Beste batzuek botoiak saltzen dituzte, edo autobusak gidatu edo auto-saltokietan <b>irribarrea jantzi</b> .	19
<b>itolarri</b> arnasestua, estutasuna	Lagunari gezurra esatearen <b>itolarria</b> jasangaitza zaio.	47
<b>itzal</b> gerizpea	Hitz asko daude katu hori zer den azaltzeko. Miseria Lagun. Bele Gizon. Ilun. <b>Itzal</b> .	46